



# A K T A

## Udalbatzarraren ohiko bilkura

**EGUNA:** 2007ko azaroaren 27a, asteartea

**LEKUA:** Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa

**DEIALDIA:** Lehena   **HASIERA-ORDUA:** 19:00   **AMAIERA-ORDUA:** 19:50

**BERTARATUAK:** Alkatea

Jon Redondo Lertxundi,

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Joseba Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez de Gereño, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Eugenio Cotado Iturain eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa

**Idazkari-kontuhartzailea**

Jon Carrera Jauregi

### Aztergai zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarrak 2007ko urriaren 30ean egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2008ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Aurrekontu Orokorra.
- 3.- Onartzea, egoki bada, 2008ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Orioko Udalaren plantilla organikoa eta lanpostu-zerrenda.



- 4.- Onartzea, egoki bada, erosleen aurreko kontu abal bat irekitzea, 897.674,69 euroko kopurua duena, eta alkateari ahalmena ematea kontu abal hori izenpetzeko Orioko Udalaren izenean.
- 5.- Baimena ematea, egoki bada, Karela udal kiroldegiko kafetegi-tabernan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuen ustiapen eskubideak hirugarren batzuei lagatzeko.
- 6.- Behin betiko onarpena ematea, egoki bada, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko Estatutuen aldaketari.
- 7.- Eskariak eta galderak.

## Esan-eginak

### **1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAK 2007KO URRIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTAREN ZIRRIBORROA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Eugenio Cotado zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du aktaren zirriborroan jasota dagoela udalbatzarrera 20:00etan etorri zela eta abisua eman zuela berandu iritsiko zela, baina ez dela jasota geratu zein izan zen berandu iristearren arrazoia: Donostialdean izandako trafiko butxadura handia.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Eugenio Cotadok adierazitakoa ikusita eta gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

**ONARTZEA** Udalbatzarrak 2007ko urriaren 30ean egindako ohiko bilkurako akta

### **2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2008KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION AURREKONTU OROKORRA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Joseba Goiburu zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango diola 2008ko aurrekontu orokorrari. Adierazten du eskertu nahi duela egindako ahalegina, 2000 euroko partida bat sartzeko aurrekontuan, genero berdintasunaren aldeko neurriak hartzeko; baina bere taldearen botoa kontrakoa izango dela, honako arrazoietan oinarrituta (hitzez hitz jasoa):



1.- Kontuan hartuta gaur egungo Udalaren osaketa ugaria, ez dugu behar bezainbeste denborarik izan taxuzko aurrekontuak osatzeko; hau da, denon artean osatutako ekitaldi ekonomiko bat islatzeko denborarik ez dugu hartu, eta horrek ekar dezakeena zera da: aurreko urteetan gertatutako kreditu aldaketa izugarri horien onartzea ohitura bihurtzea. Gainera, argi ikusten da betiko irizpideak bakarrik azaltzen zaizkigula aurrekontu hauetan ere, eta herriko hainbat esparru ez dira azaldu ere egiten, existituko ez balira bezalaxe.

2.- Aurrekontuan 2.000.000 euroko sarrera aurreikusten da, futbol zelaiko aparkalekuen salmentaren ondorio. Bere garaian, herriak firma bilketez eta hainbat ekitaldiren bidez desadostasuna erakutsi zuen salmenta hauekiko. Hori dena kontuan hartu behar dela deritzogu, herriko aparkatzeko ezintasunarekin batera, garaje hauek pribatuki salgai jartzea gaur egun hanka sartze handi bat dela uste dugu. Zer esanik ez, jadanik aurrekontuetan finantzazio iturri handi modura ikustea ere, zati handi bat kili-kolo jar dezake.

3.- Dieta gastuak gehiegizkoak direla iruditzen zaigu.

4.- Etxebizitzaren arazoa aztertzeke borondaterik ez da agertzen.

5.- **ORIOKO PLAZA** aldizkaria argitaratzearekin ez gaude ados; ditugun bi aldizkariak bultzatu behar ditugu, herriko eta inguruetakoko informazioa ezin hobeto iristen baitzaigu horien bidez.

Iñaki Iturain zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa emango diola 2008ko aurrekontu orokorraren onarpenari; adierazten du denbora gutxi izan dutela aurrekontua behar bezala aztertzeke eta bere talde politikoak propio eskatu zuela gaia abenduko udalbatzarrera atzeratzea. Iñaki Iturainek eskatzen du hurrengo ekitaldi ekonomikoetan denbora gehiago hartzea, aurrekontuak behar bezala aztertu eta eztabaidatzeko.

Leire Zinkunegi zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du, zalantzarik gabe, denbora gehiago izan balitz, aurrekontu osoagoa prestatuko litzatekeela.

Jesus Rodriguez zinegotziak (PSE-EE-PSOE) hartzen du hitza eta adierazten du baiezko botoa emango diola 2008ko aurrekontu orokorraren onarpenari. Adierazten du onartzeko modukoa iruditzen zaiola, nahiz eta desadostasuna agertu nahi duen hiru partidarekin: Udalbideri buruzkoa, 'organo fantasma' bat iruditzen zaiolako; UEMari buruzkoa, erakunde horrek elebakartasuna bultzatzen duelako guztion kaltetan; eta Herri Ikastolaren finantzazioari buruzkoa, hitzarmen txar baten ondorio baita, Udala behartzen duena diru publikoa ematera ikastetxe pribatu bati. Adierazten du, bukatzeko, 2008ko aurrekontu orokorra ez dela sozialista eta bere talde politikoak beste era batera egingo lukeela.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du guztion arteko ahalegina egin dela, 2008ko aurrekontu orokorra prestatzerakoan, eta ez zaiola egokia iruditzen orain



denbora falta arrazoitzea, zeren eta Udalbatzarra osatu zenetik ari dira talde politikoak lanean. Adierazten du bere talde politikoa abuztuan bertan hasi zela lanean aurrekontuarekin eta beren asmoa izan dela udal batzorde informatzaile guztien ekarpenak jasotzea.

Alkateak dio, baita ere, gustatuko litzaiokeela norbaitek diru sarrera handiagoak ekarri izana; baina eskertu egin nahi duela batzorde informatzaileetako buruek egindako lana, 2008ko aurrekontuan guztien ekarpenak jaso dira-eta.

Iñaki Iturain zinegotziak hartzen du hitza eta erantzuten dio alkateari ez direla ekarpen guztiak jaso, zeren eta, esate baterako, ez baita jaso beren proposamena ORIOKO PLAZA udal aldizkariaren partida (44.000 eurokoa) kendu eta, haren partez, beste bat sortzekoa, KARKARA aldizkariarentzat (10.000 eurokoa); proposamen hori onartu balitz, 34.000 euro aurreztuko zirela dio Iñaki Iturainek.

Leire Zinkunegi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du ezin dela inbertsio erritmo honekin segitu, diru sarrera mugatuak dira-eta.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda batzordeak 2007ko azaroaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoa: Iturain (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**; kontrako botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

**1.- LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udaleko 2008ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Aurrekontu Orokorrari. Aurrekontuaren laburpena, kapituluka, honako hau da:

### **ORIOKO UDALAREN AURREKONTUA**

#### **DIRU SARRERAK**

<b>Kapituluak</b>	<b>Izendapena</b>	<b>Kopurua</b>
<b>1</b>	Zerga zuzenak	665.372
<b>2</b>	Zeharkako zergak	45.000
<b>3</b>	Tasak eta bestelako diru sarrerak	882.368
<b>4</b>	Transferentzia arruntak	3.216.251
<b>5</b>	Ondasun diru sarrerak	258.181
<b>6</b>	Inbertsio errealen besterenganatzea	3.604.054
<b>7</b>	Kapital transferentziak	271.756
<b>GUZTIRA</b>		<b>8.942.982</b>



# ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ohiko bilkurako akta • 2007/11/27

## GASTUAK

Kapituluak	Izendapena	Kopurua
<b>1</b>	Pertsonal gastuak	2.223.372
<b>2</b>	Ondasun arrunten erosketak	1.837.120
<b>3</b>	Finantza gastuak	60
<b>4</b>	Transferentzia arruntak	844.188
<b>6</b>	Inbertsio errealak	4.038.236
<b>7</b>	Kapital transferentziak	6
<b>GUZTIRA</b>		<b>8.942.982</b>

## ORIO GARATZEN, S.L. UDAL SOZIJATEAREN AURREKONTUA

### DIRU SARRERAK

Kapituluak	Izendapena	Kopurua
<b>5</b>	Ondasun diru sarrerak	28.000
<b>7</b>	Kapital transferentziak	6
<b>GUZTIRA</b>		<b>28.006</b>

### GASTUAK

Kapituluak	Izendapena	Kopurua
<b>2</b>	Ondasun arrunten erosketak	4.576
<b>3</b>	Finantza gastuak	6
<b>6</b>	Inbertsio errealak	23.424
<b>GUZTIRA</b>		<b>28.006</b>

**KONTSOLIDATUTAKO AURREKONTUA \*****DIRU SARRERAK**

<b>Kapituluak</b>	<b>Izendapena</b>	<b>Kopurua</b>
<b>1</b>	Zerga zuzenak	665.372
<b>2</b>	Zeharkako zergak	45.000
<b>3</b>	Tasak eta bestelako diru sarrerak	882.368
<b>4</b>	Transferentzia arruntak	3.216.251
<b>5</b>	Ondasun diru sarrerak	286.181
<b>6</b>	Inbertsio errealen besterenganatzea	3.604.054
<b>7</b>	Kapital transferentziak	271.762
<b>GUZTIRA</b>		<b>8.970.988</b>

**GASTUAK**

<b>Kapituluak</b>	<b>Izendapena</b>	<b>Kopurua</b>
<b>1</b>	Pertsonal gastuak	2.223.372
<b>2</b>	Ondasun arrunten erosketak	1.841.696
<b>3</b>	Finantza gastuak	66
<b>4</b>	Transferentzia arruntak	844.188
<b>6</b>	Inbertsio errealak	4.061.660
<b>7</b>	Kapital transferentziak	6
<b>GUZTIRA</b>		<b>8.970.988</b>

**2.- ONARTZEA** Orioko Udalaren 2008ko Aurrekontu Orokorren exekuzio oinarriak.

**3.- JENDAURREAN JARTZEA** Orioko Udalaren 2008ko Aurrekontu Orokorra, aurrekontu propioak eta ORIO GARATZEN SL udal sozietate publikoaren aurrekontuak osatua, ondoko arauetan ezarritakoa betez: Toki Araubideen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 150.1 artikulua. Jendaurrean jartzea honako arauen arabera izango da:

a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontuhartzailletza.



- b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita (iragarkia Udaleko iragarki taulan eta ohiko lekuetan ere jarriko da).
- c) Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak: Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 151.1 artikulua aipatzen dituen interesatuek.
- d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 28ko 39/1988 legearen 151.2 artikuluan adierazitakoak.
- e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera erregistroan, bulego orduetan (asteleheneetik ostiralera 8:30etatik 14:30etara).
- f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, aipatutako Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin-betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

### **3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2008KO EKITALDI EKONOMIKOARI DAGOKION ORIOKO UDALAREN PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTU-ZERRENDA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda batzordeak 2007ko azaroaren 26an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Cotado (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV) eta Zinkunegi (EAE-ANV), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

**ONARTZEA** 2008ko ekitaldi ekonomikoari dagokion Orioko Udalaren plantilla organikoa eta lanpostu zerrenda

Emandako botoa azaltzeko, Karmele Belasko zinegotziak (EAE-ANV) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, zeren eta, beren ustez, udal plantillaren gaia poliki aztertu beharrekoa baita eta, beraz, abenduko udalbatzarrean eztabaidatu eta onartzea eskatzen dute. Adierazten du, baita ere, arretaz aztertu behar dela mugagabeko kontratua duten baina langilego finkoaren parte ez diren langileen egoera, enplegu eskaintza publikoa, lanpostu hutsen egoera eta abar.



**4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EROSLEEN AURREKO KONTU ABAL BAT IREKITZEA, 897.674,69 EUROKO KOPURUA DUENA, ETA ALKATEARI AHALMENA EMATEA KONTU ABAL HORI IZENPETZEKO ORIOKO UDALAREN IZENEAN.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

**1.- ONARTZEA** erosleen aurreko kontu abal bat irekitzea, 897.674,69 euroko kopurua duena, Gipuzkoa Donostia Kutxa entitatearekin, Orioko Hondartza AIU3ko UE2ko Babes Ofizialeko 36 etxebizitzaren erosleek egindako konturako ordainketak bermatzeko.

**2.- AHALMENA EMATEA** Orioko alkate-presidente Jon Redondo Lertxundiri, kontu abal hori izenpetzeko, Orioko Udalaren izenean.

**5.- BAIMENA EMATEA, EGOKI BADA, KARELA UDAL KIROLDEGIKO KAFETEGI-TABERNAN UDALAK BAIMENDUTAKO OSTALARITZA ZERBITZUEN USTIAPEN ESKUBIDEAK HIRUGARREN BATZUEI LAGATZEKO.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Karela udal kiroldegiko kafetegi-tabernaren ustiapena Ouarda El Kattoumi Ep Ziani adjudikaziodunari dagokio gaur egun eta tramiteak hasi ditu ustiapen eskubide horiek Erica Maritza Vergara Chitivari lagatzeko.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Hazienda batzordeak 2007ko azaroaren 19an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Cotado (EA), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**]:

**1.- BAIMENA EMATEA** Karela udal kiroldegiko kafetegi-tabernan Udalak baimendutako ostalaritza zerbitzuen ustiapen eskubideak, Ouarda El Kattoumi Ep Ziani adjudikaziodunak dauzkanak, Erica Maritza Vergara Chitivari lagatzeko. Adjudikaziodun berriarentzat indarrean izango dira Udalbatzarrak 2003ko irailaren 30ean onartutako baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboko pleguak, bere osotasunean, eta, besteak beste, beraz, ustiapen eskubideen iraupena 2023ko azaroaren 25a artekoa izango da.

**2.- JAKINARAZTEA** erabaki honen berri prozedura administratibo honetan interesatutako pertsona guztiei, jakin dezaten eta horren ondorioz joka dezaten, dagozkien lege errekurtsioak adieraziz.





**6.- BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, EGOKI BADA, UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETARI.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) Batzar Nagusiak bere estatutuen aldaketa onartu zuen 2004ko urriaren 16an. Onartutako aldaketak, hitzez hitz, honako hauek dira:

**1. artikulua.-** UEMA osatzen duten herrien zerrenda eguneratzea.

**4. artikulua**ren erredakzio berria honako hau da:

1).- UEMArekin helburu orokorra da euskara zerbitzua eskaintzea bertako partaide diren udal administrazioen barne jarduerara zein udalerrietako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Euskara zerbitzuak udaletako erabilera planak diseinatu eta udal langileak trebatuko ditu.

2).- UEMAk udalerrietan kultur ekitaldiak eta jaialdiak antolatzeke kultur zirkuitua jarriko du martxan. Horretarako, kultur zerbitzua antolatuko du mankomunitateak.

3).- UEMAk udalen garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko aholkularitza zerbitzua eratuko du mankomunitateak.

4).- UEMAk udalerrietako merkatarien zerbitzua hobetzeko zerbitzu teknikoa antolatuko du mankomunitateak.

5).- Etorकिन integrazioa ahalbideratzeko planak diseinatuko ditu mankomunitateak eta horretarako zerbitzua antolatuko du.

6).- Gainontzeko helburu eta zerbitzuei dagokienez, legediak mankomunitateei ematen dizkien eskubide eta eskumenen jabe izango da.

7).- Bertako partaide diren udalen ahaleginak emaitza maila gorena izan dezaten, UEMAk hauen ekintzak koordinatu eta beharrezko laguntza teknikoa eskainiko die.

**23.artikulua.-** 1. eta 2. puntuak idazkera berria izango dute:

1. Azken udal eroldaren arabera, bere biztanlegoaren %70etik gora euskalduna izatea.

2. Udal eta udalerrri mailan euskaraz bizitzeko konpromisoa.

**Aldi baterako erabakiak.-** Bigarren erabakiaren azken esaldia kentzea.

Kenduko den esaldia hau da: zeinaren lana UEMA sortu bitartean BPZ zerbitzuak bete du.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ohiko bilkurako akta • 2007/11/27

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Euskara, Hezkuntza eta Merkataritza batzordeak 2007ko azaroaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Belasko (EAE-ANV), Goiburu (EAE-ANV), Zinkunegi (EAE-ANV), Iturain (EB-B/Aralar) eta Cotado (EA), guztira **BEDERATZI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

**BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA** Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko Estatutuen aldaketari, UEMaren batzar nagusiak 2004ko urriaren 16an onartutako eta goian jasotako terminoetan.

### **7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

**ALKATE-PRESIDENTEA**

**IDAZKARIA,**